

Ugalderi omenaldia

Javier Rojo

El Correo, 1997-11-05.

Andoaingo Udalak ematen dituen Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietako azken edizioan, Ohorezko Aipamena egin zitzaion Martin Ugalde kazetari eta idazleari. Aipamen honen osagarri gisa liburuxka hau argitaratu du udal horrek. idazlan honetan Anjel Lertxundik, alfabetikoki, beste liburu batzuetan egin izan duen bezala, ia-ia hiztegi bat izango bailitzan, Martin Ugalde hobeto ulertzeko zenbait giltzarri erakusten dizkigu, glosa batzuen bidez. Hortaz, Ugalderen beraren hitzen ondoan, eta hitz horiek abiapututzat hartuta, Lertxundik aletzen dituen hausnarketak plazaratzen dira bertan. Hiztegi gisa antolatuta dagoelarik, hasi "Askatasun" hitzarekin hasten da eta Martin Ugaldek idatzitako hitz hauekin: "Denon askatasunak egiten gaitu libre". Liburuxkan zehar hainbat mintzagai desberdin agertuko zaizkigu: Espainiako Gerra Zibilaren ostean hegoamerikan, Venezuelan hain zuzen, jasandako deserria, eta honi esker (egoerarik txarrenetan ere alderdi ona aurkitu ohi dela frogatuz) ezagutu zuen bigarren aberria; hango literatura; kazetaritzari buruzko egitasmoak... Liburu txikia baina oso interesgarria euskal kulturaren langile hori ezagutzen laguntzen diguna, Martin Ugaldek merezimendu osoz jaso behar zuen omenaldi apala, errespetuz eta leialki egina.